


# 9 Soles Eguzki 2022

Ciclo de  
acciones  
artísticas  
Ekintza  
artistikoen  
zikloa



Vuelve 9 SOLES con una nueva edición en el Mirador del Museo de Navarra, bajo el cielo inmenso. 9 citas con el arte de la presencia. 9 acciones artísticas que experimentan con los nuevos lenguajes plásticos, escénicos y sonoros.

Este año, las dos primeras intervenciones, el 26 de junio y el 3 de julio, se trasladan a la plaza del Museo a modo de celebración. Y es que, hace cincuenta años, en estas mismas fechas y en estas mismas calles tuvieron lugar los Encuentros de Pamplona. Un acontecimiento artístico único que todavía es recordado por la historia.

9 SOLES 2022 se une a la programación cultural del 50 aniversario de los Encuentros de 1972, haciendo suya la reivindicación de su director artístico, el ensayista y poeta Ramón Andrés, de que la cultura sea entendida como un elemento transformador y de reflexión.

Así, desde una diversidad de formas y de intereses, las artistas invitadas interpelarán con cierta intensidad nuestro sentir y pensar el mundo. Algunas cuestiones que se tratarán desde su práctica son: cómo entender al otro o relacionarse con las máquinas; cómo revisar los relatos hegemónicos o dar voz a lo silenciado; cómo ser conscientes de la relación entre los cuerpos, las imágenes y los objetos; cómo llevar una idea a su límite; cómo pasar a ser protagonistas de una creación y cómo reconocer socialmente el trabajo del artista. Estas reflexiones y otras aparecerán por debajo de una forma o un gesto artístico, que quedará expuesto en un acto de presencia y de encuentro con el público.

9 EGUZKI Nafarroako Museoko Behatokira itzuliko da edizio berri batean, zeru mugagabearen pean. 9 hitzordu, presentziaren artearekin. Hizkuntza plastiko, eszeniko eta soinudun berriekin esperimentatzen duten 9 ekintza artistiko.

Aurten, lehenbiziko bi esku-hartzeak, ekainaren 26an eta uztailaren 3an, Museoko plazan egingo dira, ospakizun moduan. Izan ere, duela berrogeita hamar urte, egun hauetan eta kale hauetan, Iruñeko Topaketak egin ziren. Historiak oraindik ere gogoan duen gertakari artistiko bakana.

9 EGUZKI 2022 zikloak bat egingo du 1972ko Topaketen 50. urteurrenaren kultura-programazioarekin, Ramón Andrés zuzendari artistiko, saiakeragile eta poetaren aldarrikapena bere eginez: elementu eraldatzaile eta gogoetarako moduan uler dadila kultura. Hartara, forma eta interes anitzetatik, artista gonbidatuek nolabaiteko intentsitatearekin interpelatu egingo dute munduan dugun iritzia eta ustea. Haien jardunetik tratatuko diren alderdietako batzuk hauek dira: nola ulertu bestea edo erlazionatu makinekin; nola berrikusi kontaketa hegemonikoak edo hitza eman isilduari; nola izan kontziente gorputzen, irudien eta objektuen arteko erlazioaz; nola eraman ideia bat bere mugaraino; nola igaro sorkuntza baten protagonista izatera eta nola aitortu sozialki artistaren lana. Gogoeta horiek eta beste batzuk agertuko dira forma edo keinu artistiko baten pean, agerian geldituko dena ikus-entzuleekiko topaketa eta presentzia ekintza batean.

# LA FAKTORIA

26 JUN / EKA.  
20.00

DANZA CONTEMPORÁNEA / DANTZA GARAIDEA  
PLAZA DEL MUSEO / MUSEOKO PLAZAN

La Faktoria abre 9 SOLES 2022 presentando dos piezas creadas por estudiantes del centro: **Las voces que habito**, un solo de Raquel Jara, y **Por un desliz**, un dúo de Paula Puchalt y Sergio Navarro. Ambas propuestas coreográficas se aproximan a la existencia del otro. Raquel Jara lo hace poniéndose en la piel de una persona que padece histeria. Dejando que aflore lo inconsciente, busca descubrir a esa otra mujer que parece querer adueñarse de su cuerpo. Por su parte, Paula Puchalt y Sergio Navarro entablan un diálogo en el que ponen a prueba posibles formas de ser dos. Ahí, donde el apoyo sirve de contrapunto al equilibrio, se dibuja el juego de la alteridad.

La Faktoriak 9 EGUZKI 2022 abiaraziko du, ikastetxeko ikasleek sortutako bi pieza aurkeztuz: **Las voces que habito**, Raquel Jararen bakar-saioa, eta **Por un desliz**, Paula Puchalt eta Sergio Navarroren duoa. Bi proposamen koreografikoak bestearen existentziara hurbiltzen dira. Raquel Jarak histeria duen pertsona baten azalean jarriz egingo du. Inkontzienteari azaleratzen utzita, bere gorputzaz jabetu nahi duela dirudien beste emakume hori aurkitzeko asmoa izango du. Bere aldetik, Paula Puchalt eta Sergio Navarrok elkarrizketa bat hasiko dute, eta bertan bi izateko egon daitezkeen moduak probatuko dituzte. Hor, sostenguak orekaren kontrapuntu moduan balio duen lekuan, alteritatearen jolasa marrazten da.




# PEIO LEKUMBERRI

3 JUL / UZT.  
20.00

TEATRO PERFORMANCE / ANTZERKI PERFORMANCEA  
PLAZA DEL MUSEO / MUSEOKO PLAZAN

En **NA3394BD, este coche es un agujero**, Peio Lekumberri es autor, intérprete y personaje. Todo su monólogo se refiere a un Volkswagen Passat matriculado en Navarra en el año 2000, que hace de dispositivo escénico y a la vez de receptáculo del relato en primera persona que Lekumberri quiere contar. Al principio de la obra, dice: “las cosas y los objetos están impregnados de presencias”. Y es que la performance se propone observar la relación que mantenemos con los artefactos mecánicos y tecnológicos, cómo nos apoyamos en ellos y cómo estos conservan nuestras historias más íntimas. De este modo, mediante la palabra y el cuerpo, Lekumberri realiza una coreografía en torno al vehículo familiar que se convierte en un ritual poético y liberador.

**NA3394BD, este coche es un agujero** lanean Peio Lekumberri egilea, interpretatzailea eta pertsonaia da. 2000n Nafarroan matrikulatutako Volkswagen Passat auto bati dagokio bakarriketa osoa, zeina aldi berean den gailu eszenikoa eta Lekumberrik lehen pertsonan kontatu nahi duen kontaketa errezetakulua. Lanaren hasieran, hau esango du: “Gauzak eta objektuak presentziek blaituta daude, haien eragina dute”. Izan ere, tramankulu mekanikoekin eta teknologikoekin dugun erlazioari behatzea da asmoa, nola sostengatzen garen haietan eta nola gordetzen dituzten haiek gure istorio intimoenak. Hartara, hitzaren eta gorputzaren bidez, Lekumberrik koreografia egingo du familia-ibilgailuaren inguruan, erritu poetiko eta askatzaile bihurtuko dena.



# MIREN ASIAIN LORA & ANDREA GANUZA SANTAFÉ


20 JUL / UZT.  
20.00

---

MURAL COLABORATIVO / ELKARLANEKO MURALA  
MIRADOR DEL MUSEO / MUSEOKO BEHATOKIAN

Miren y Andrea pertenecen a la misma generación, son dibujantes y comparten estudio. **Pero yo quisiera cantar** es el título del mural que han ideado juntas y que van a ejecutar a cuatro manos, llevando a la cristalera que sirve de transición entre el interior y el exterior del Museo una de sus tantas conversaciones. La primera conversación que quieren plasmar es un diálogo gráfico entre dos formas de dibujar. Es decir, entre dos personalidades. También buscan llevar el diálogo al plano de las ideas, cuestionando la realidad, y para ello se han apoyado en la colección de arte del Museo, revisando los discursos y redibujando algunas obras, con el objetivo de hacer posible su transformación.

Miren eta Andrea belaunaldi berekoak dira, marrazkilariak dira eta estudioa partekatzen dute. Elkarrekin asmatu duten muralaren izenburua **Pero yo quisiera cantar** da eta lau eskutara egingo dute, Museoaren kanpoaldearen eta barnealdearen arteko trantsizioa egiten duen beiratera haien elkarrizketa ugarietako bat eramanez. Irudikatu nahi duten lehenbiziko solasaldia marrazteko bi moduren arteko elkarrizketa grafikoa da. Hau da, bi nortasunen artekoa. Elkarrizketa ideien planora ere eraman nahi dute, errealitatea zalantzan jarritz, eta horretarako Museoko arte-bilduman oinarritu dira, arrazoibideak berrikusiz eta lan batzuk berriro marraztuz, eraldatzeari bidea emateko helburuarekin.



# RAMMSY, AZKONA & TOLOZA

27 JUL / UZT.  
20.00

NUEVOS SONIDOS / SOINU BERRIAK  
MIRADOR DEL MUSEO / MUSEOKO BEHATOKIAN

El proceso de investigación documental de la pareja de artistas Azkona & Toloza les ha llevado a recorrer montañas y desiertos. En su último proyecto, han partido de la siguiente premisa: frenar y escuchar. Después de años dedicados a rastrear relatos que desvelan las grietas causadas por el colonialismo, han decidido ponerse a escuchar voces no humanas. En el Mirador, presentan su **Concierto geológico** conjuntamente con el músico Rodrigo Rammsy Varas. Un viaje sonoro que bucea en lo mineral y lo líquido, es decir, lo que se encuentra más alejado del ser humano en los sistemas de clasificación de la naturaleza y por lo tanto es considerado libre de ser explotado desenfrenadamente.

Azkona & Toloza artista bikotearen ikerketa dokumentalaren prozesuak mendietan eta basamortuetan ibiltzera eraman ditu. Haien azkeneko proiektuan premisa honetatik abiatu dira: gelditzea eta entzutea. Kolonialismoak eragindako arrakalak agerian uzten dituzten kontaktak arakatzen hainbat urte ematen eta gero, gizakionak ez diren ahotsak entzuten aritzea erabaki dute. Behatokian, **Concierto geológico** izeneko aurkeztuko dute, Rodrigo Rammsy Varas musikariarekin batera. Mineralaren eta likidoaren artean murgiltzen den soinu-bidaia, hau da, naturaren sailkapen-sistemetan gizakitik aldenduena dagoenean eta, horrenbestez, neurrigabe ustiatzetik libretzat jotzen denean.



# MAYTE VELAZ SANCHA

03 AGO / ABU.  
20.00

ESCULTURA Y PERFORMANCE / ESKULTURA ETA PERFORMANCEA  
MIRADOR DEL MUSEO / MUSEOKO BEHATOKIAN

Puede que el arte sea un entrenamiento para encararse con lo extraño o lo indescifrable. A Mayte Velaz, le interesa provocar cierta desorientación en el espectador. En su propuesta performativa **Escudo y proyector**, trae al Mirador algunas esculturas para darlas a ver, pero también pone su cuerpo y su voz a interactuar con las esculturas y el espacio. Con ello se interroga sobre nuestras maneras de relacionarnos, sobre nuestros vínculos con los objetos, o sobre nuestros modos de estar y de habitar los lugares. Y mediante esta experimentación, ensancha el campo de la escultura más allá de su estricta materialidad.

Baliteke artea entrenamendua izatea arrotzari edo ulertezinari aurre egiteko. Ikus-entzulearengan nolabaiteko desorientazioa eragiteko interesa du Mayte Velazek. **Escudo y proyector** proposamen performatiboan, eskulturetako batzuk ekarriko ditu Behatokira erakusteko, baina, horrez gain, eskulturekin eta tokiarekin elkarri eragiteko, bere gorputza eta ahotsa jarriko ditu. Horrekin, elkarrekin harremanak izateko gure moduei, objektuekin ditugun loturei edo tokietan egoteko edo bizitzeko ditugun moduei buruz galdetuko dio bere buruari. Eta esperimentazio honen bidez, eskulturaren alorra zabalduko du, haren materialtasun zorrotzetik harago.



# ELISA ARTETA & XABIER ERKIZIA

10 AGO / ABU.  
20.00

PERFORMANCE DE CUERPO Y SONIDO / GORPUTZ ETA SOINU PERFORMANCEA  
MIRADOR DEL MUSEO / MUSEOKO BEHATOKIAN

La propuesta **Sensibilizar los cuerpos** de Elisa Arteta nace del entusiasmo por experimentar con el propio cuerpo, tratando de que se produzca una transferencia de energía a los demás cuerpos presentes. En el espacio del Mirador, la pieza coreográfica se irá construyendo a la par que la instalación sonora gracias a la participación del músico Xabier Erkizia. De este modo, sumando capas de movimientos y sonidos, la obra irá aumentando en intensidad, despertando sensaciones en las personas asistentes, que tendrán la posibilidad de acceder a un estado de conciencia nuevo.

Elisa Artetaren **Sensibilizar los cuerpos** proposamena gorputzarekin berarekin esperimintatzeagatikogogo handitik sortu da, presente dauden gainerakogorputzetara energia-transferentzia gerta dadilalortu nahian. Behatokian, pieza koreografikoa soinu-instalazioarekin batera joango da eraikitzen, Xabier Erkizia musikariaren parte-hartzeari esker. Hartara, mugimenduen eta soinuen geruzak batuta, lana intentsitatea areagotzen joango da, bertaratutakoen sentsazioak esnarazita. Bertan direnek kontzientzia-egoera berri batera heltzeko aukera izango dute.



# YVES CHAUDOUËT & IKER IDOATE

17 AGO / ABU.  
20.00

NUEVOS SONIDOS / SOINU BERRIAK  
MIRADOR DEL MUSEO / MUSEOKO BEHATOKIAN

**La batería frágil** de Yves Chaudouët llega al Mirador. Este instrumento único ha sido concebido por Yves Chaudouët y puesto a punto por la ceramista Marjorie Thébault. En esta batería, los tambores y platillos están hechos de cerámica y cada pieza guarda un sonido diferente, según su tamaño y tiempo de cocción. El percusionista Iker Idoate se encargará de hacer sonar este objeto de un blanco impoluto, que alberga una paradoja: para evitar que las piezas se rompan, se deben golpear con extrema delicadeza. Este límite infranqueable es un aviso que nos puede hacer reflexionar sobre las formas de lo frágil en nuestras vidas y en la sociedad actual.

Yves Chaudouët en **La batería frágil** Behatokian izango da. Musika-tresna bakan hau Yves Chaudouëtek asmatu du, eta Marjorie Thébault zeramikariak prestatu. Bateria honetan, danborrak eta txindatak zeramikazkoak dira, eta pieza bakoitzak soinu desberdina du, tamainaren eta egosteko denboraren arabera. Iker Idoate perkusionista arduratuko da zuri orbangabea den eta paradoxa bat duen objektu honi soinua eragiteaz: piezak haustea ekiditeko, izugarrizko kontuarekin jo behar dira. Muga iraganezin hori abisu bat da, gogoeta egiteko balio dezakeena gure bizitzetan eta egungo gizartean hauskorra denak dituen moduen gainean.



# INÉS AUBERT BADILLA

24 AGO / ABU.  
20.00

LABORATORIO DE MOVIMIENTO / MUGIMENDU-LABORATEGIA  
MIRADOR DEL MUSEO / MUSEOKO BEHATOKIAN

La coreógrafa y bailarina Inés Aubert vincula su trabajo sobre el cuerpo y el movimiento con la intervención social inclusiva. Sitúa a las personas en el centro de sus trabajos, especialmente a las que son ajenas a la profesión artística, priorizando así la experiencia comunitaria. En el Mirador, presentará **Acachete**, una acción artística que se habrá ido gestando en un laboratorio de danza a lo largo de las cinco semanas anteriores. A las participantes del laboratorio, les propondrá pasar de ser espectadoras a ser protagonistas, poniendo en común el registro vital de movimientos de cada una.

Inés Aubert koreografo eta dantzariak gorputzari eta mugimenduari buruzko bere lana esku-hartze sozial inklusiboarekin lotzen du. Pertsonak bere lanen erdian kokatzen ditu, bereziki, lanbide artistikotik kanpokoak direnak, komunitate-esperientzia lehenetsiz, hartara. Behatokian, **Acachete** aurkeztuko du, aurreko bost asteetan dantza-laborategi batean eratzen joango den ekintza artistikoa. Laborategiko parte-hartzaileei proposatuko die ikus-entzule izatetik protagonista izatera igarotzeko, haietako bakoitzaren mugimenduen bizi-erregistroa partekatuta.



# TAXIO ARDANAZ & MARTA RAMOS-YZQUIERDO

31 AGO / ABU.  
20.00

PERFORMANCE PLÁSTICA Y TEXTUAL / PERFORMANCE PLASTIKO ETA TESTUALA  
MIRADOR DEL MUSEO / MUSEOKO BEHATOKIAN

En su acción colaborativa titulada **El hambre**, Taxio Ardanaz y Marta Ramos-Yzquierdo hacen referencia a los “Indiani Metropolitani”, grupos de jóvenes que en la Italia del 1977, reivindicaban una forma de vida y de resistencia pacífica, irónica y festiva mediante la palabra y la performance. El propósito de la intervención es relacionar a estos revolucionarios que aparecieron en un contexto de precarización laboral con la figura del artista actual que también opera desde el margen del sistema, reflexionando así sobre su rol en la sociedad contemporánea.

**El hambre** izenburua duen ekintza kolaboratiboan, Taxio Ardanaz eta Marta Ramos-Yzquierdok “Indiani Metropolitani” izenekoei egiten diete aipamena. Hain zuzen, gazte-taldeak ziren, eta 1977ko Italian bizimodu eta erresistentzia baketsua, ironikoa eta jai-girokoa aldarrikatzen zuten, hitzaren eta performancearen bidez. Esku-hartzearen xedea da lan-prekarizazioko testuinguru batean agertu ziren iraultzaile horiek sistemaren ertzetik ere jarduten duen egungo artistaren figurarekin erlazionatzea, egungo gizartean duen eginkizunaren gainean hausnartuz.



COMISARIADO  
KOMISARIOA

**Alexandra Baurès**

COORDINACIÓN TÉCNICA  
KOORDINAZIO TEKNIKOA

**Ana García**

SONIDO  
SOINUA

**Iosu Marti**

VIDEOS  
BIDEOAK

**The Visible Man**

IMAGEN  
DISEINUA

**Ken**

BAR  
TABERNA

**Zentral**

VENTA DE ENTRADAS  
EN LA TAQUILLA DEL MUSEO.  
SÓLO EN METÁLICO.

SARREREN SALMENTA, MUSEOKO  
LEIHATILAN.  
ESKUDIRUTAN BAINO EZIN  
DIRA ORDAINDU.

» **28 JUN / EKA. — 13.00**

MÁXIMO DOS ENTRADAS POR  
PERSONA Y POR SESIÓN.

GEHIENEZ ERE BI SARRERA  
PERTSONAKO ETA SAIOKO.

DE NAVARRA **MUSEOA** NAFARROAKO

SANTO DOMINGO, 47.  
PAMPLONA / IRUÑA.  
T 848 42 64 92 / 848 42 89 26.  
museo@navarra.es

## Plaza

ENTRADA LIBRE  
SARRERA DOAN

ACCIÓN ARTÍSTICA  
EKINTZA ARTISTIKOA

**20.00**

## Mirador

ENTRADA  
CON CONSUMICIÓN  
SARRERA  
KONTSUMIZIOAREKIN

**10 €**

AFORO  
EDUKIERA

**70**

MIRADOR  
BEGIRALEKUAN

**50**   
HALL  
HALLEAN

APERTURA DEL  
MIRADOR Y BAR  
BEGIRATOKIA  
ETA TABERNA  
IREKITZEA

**19.00 » 21.30**

ACCIÓN ARTÍSTICA  
EKINTZA ARTISTIKOA

**20.00**

